

Amaitu da Kultur Astea

'Ingurutxoa' eta artisauak izan dira ▶ 7



Aste Berdea Tolosan, ingurumenaz aritzeko

GAIAK ▶ Mugikortasuna, energia, biodibertsitatea, ura eta zaborra izango dira jorratuko diren gaiak

ZUHAITZAK ▶ Gaur ikasleek zuhaitz esanguratsuak ezagutuko dituzte ibilaldi baten bidez ▶ 2

TOLOSA ▶

Laskorainek berdinketa batekin bukatu du

Astrabuduarekin 3-3 egin zuen Berazubin ▶ 3

VILLABONA ▶

Iratxo-Amaroz izan da garaile Olaederran

Irurako Gazte Asanbladari irabazi zion finalean ▶ 4

ALTZO ▶

Barriola deklamazio saria lortu dute

LHko 2., 3. eta 4. mailako ikasleek irabazi dute ▶ 5



Giro ederra atzo bukatu ziren Izaskungo jaietan

IBARRA ▶ Bertsolarien, dantzarien eta tritikilarien saioekin bukatu ziren atzo Izaskun auzoko jaiak. Peñagarikano eta Irazu aritu ziren bertsoetan eta Alurr taldeko txikiak dantzan. Hamaiketakoa eta meza ere ez ziren faltatu egitarauan. Eguraldia lagun, jende asko bildu zen Izaskunera. Herenegun ere izan zen

festa, nahiz eta eguraldia hain ona ez izan. Segatxiki txapelketa —argazkian— ikustera jende ugari elkartu zen bertako zelaietan. Gero zikiri jatean gelditu ziren horietako asko. Mendi irteera Belabietara, toka txapelketa, hamaiketakoa eta erromeria ere ez ziren faltatu. **DANI GIBELALDE** ▶ 6

ASTE BERDEA ▶

Etorkizun justuagoaren eta ekologikoaren alde lanean

Aste Berdea hasi zen atzo herrian; ingurumenaren eta arazo zehatzen inguruko informazioa ematea eta jendea kontzientziatzea du helburu

LEIRE MONTES

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna da hilaren 5a, ostirala. Horren inguruan, hainbat ekimen antolatu dira dagoeneko herrian. Lehendabiziko aldiz, gainera, astebete iraungo dute ekitaldiek: atzo bertan abiatu zen Aste Berdea.

Ingurumenari buruzko informazioa ematea eta jendea kontzientziatzea dira, besteak beste, Aste Berdearen helburuak: «Europako herri eta hiri askotan bezala, Tolosan ere bat egin nahi izan dugu ekimenarekin. Ospakizun honetan egun garrantzi handia duten gaiak jorratuko ditugu. Haieko kuriositate eta errespetua piztea eta arazo zehatzen inguruan jendea sentsibilizatzea dute xede ekitaldiek», azaldu dute Zuloaga Txiki ingurumen eskolako kideek. Ikastetxeetako haur eta gazteei, irakasleei eta aisialdi taldeko kideei batez ere, eta herritarrek orori daude zuzenduta ekintzak.

Atzo bertan hasi zen Tolosan Aste Berdea, Mugikortasuna abiapuntuz hartuta. Informazioa helarazten ekin zieten ingurumen jardunaldiei: herriko sarreretan eta gune estrategikoetan ingurumenari eta autoaren gehiegizko erabilerei buruzko kartelak jarri zituzten. Haur Hezkuntzako haurrek egin dituzte marrazki horiek.

Era berean, ikastetxeetan Eskolako Agenda 21-i buruzko liburuxkak banatu zituzten. «Hezkuntza proiektu bat da Eskolako Agenda 21. Hirukide, Laskorain, Samaniego eta Orixe ikastetxeek hartu dute parte. Zentroetako ingurumen kudeaketa hobetzea, ingurumen gaiak hainbat esparrutan lantzea eta ikasleei, gurasoei eta irakasleei Tokiko Agenda 21-ean parte hartzea erraztea du ardatz proiektuak». Ikasturtean egindako hainbat ekintza zehatzen ditu liburuxkak: bidegorria, ikastetxeen foroak...



Hirukideko hainbat ikasle, atzo banatutako Eskolako Agenda 21-eko liburuxka irakurtzen. LEIRE MONTES

EGUNEZ EGUN ▶

GAUR

Biodibertsitatea.

▶ Lau ekosistemi buruzko hormirudiak jarriko dituzte Trianguloan. 09:00etatik aurrera.

▶ Tolosako zuhaitz esanguratsuak ezagutzeko ibilaldia ikasleekin, Gernikako Arbolako lorategietatik. 09:00etan, 10:30ean eta 12:00etan.

BIHAR

Energia.

▶ Energia aurreztearen aldeko dekalogo batanatu dute ikastetxeetan —2.679 ale guztira—. Goizean.

▶ Herriko hamabi elektrizitate eremutan dekalogo batanatu dute —100 bat ale denda bakoitzeko—. Goizean.

ETZI

Ura.

- ▶ Oria ibaiaren garbiketa Zumardi Txiki parean eta Berazubini. 09:00etatik 13:00etara.
- ▶ Ibaiaren jaitiera piragua eta bateletan. Arratsaldean.

HILAREN 4A, OSTIRALA

Zaborra.

▶ Zaborrari buruzko mezuak islatzen dituzten irudiak jarriko dituzte, Trianguloan. 09:00etatik aurrera.

▶ Euskal Autonomi Erkidegoko 120 irakasle inguruk hartuko dute parte Jaurilaritzaren Aste Berdearen inguruko topaketan. Jokin Bildarratz Tolosako alkateak aurkezpena egingo du. 09:30ean hasita, Pablo Gorosabelen.

▶ Hondakinen Mahaiaren aurkezpena, Tolosaldeko Mankomunitatearen eskutik.

▶ Oria ibaiaren garbiketa. 15:00etatik 17:00etara.
▶ Zuhaitzen ibilaldia. 19:00etan.

Gaur, bestalde, biodibertsitatea izango da mintzagaia. «Herriko ekosistemarik interresgarrienak ezagutzeko parada izango dugu, zein mantentze arazo duten, zeintzuk diren desagertzeko arriskuan daudenak...». Jose Maria Arsuaga Udaleko lorezainak zuhaitz handien, sendoen eta zaharren inguruan ibilaldi gidatua eskainiko die ikasleei. Bihar, energiaren eguna, etxean aurreztearen gaineko 4.000 dekalogo banatuko dituzte herriko hamabi dendatan eta ikastetxeetan.

Etzi eta ostiralean, uraren eta zaborraren eguna, hurrenez hurren, Oria ibaia garbituko dute. «Jendeak eskatuta» antolatu dute berriro garbiketa: «luz egin genuen, baina arazoa ez da amaitu eta plastikokoak, erosketako karroak, trafiko seinaleak eta bestelako bitxikeriak aurkituko ditugu berriro ertzetan». Eta larunbatean, Zaborra gaia ardatz, Tokiko Agenda 21eko Lan Mahai berria aurkeztuko dute, eta EAEko 120 irakasle topaketa batean elkartuko dira, eskoletako Agenda 21-i buruzko esperientziak trukatzeko.

«Ea mezuz beteriko aste honi esker Tolosarentzat etorkizun justuagoaren eta ekologikoaren alde lan egiten dugun», diote, itxaropentsu, Zuloaga Txikiok.

DEIALDIA ▶

Usabalgo igerilekuaren proiektuari buruz

Gaur, udaletxeko batzar aretoan, Usabalgo igerilekuaren proiektua aurkeztuko dute jendaurrean, 20:00etan. Bilerira irekia da.

HITZALDIA ▶

Emantzipazioa ardatz Gazte Guneak antolatuta

Udaleko Gazteria Saileko Gazte Guneak hainbat hitzaldi antolatu ditu gazteentzat. Aste honetan emantzipazioa izango dute ardatz. Gaur, Erretengibeiko teknikari Angel Urangak etxebizitzaren inguruan hitzaldia eskainiko du, 20:00etan, Kultur Etxean.

HITZALDIA ▶

Inmigrazioari buruzko mahai-ingurua Irazkik

Irazki elkarte kulturantzak egitarau zabala antolatu du urtemugan. Bihar, 20:00etan, Kultur Etxean, *Inmigrazioa Euskal Herrian: alderdi soziologikoak eta zailtasunak* mahai-ingurua egingo dute. SOS Racismoko Agustín Unzurrunzaga eta Farapiko Begoña Pecharroman izango dira hizlari.

MUSIKA ▶

Ainhoa Artetaren kontzerturako sarrerak salgai

Ainhoa Arteta soprano tolosarrak errezitaldia eskainiko du hilaren 16an. Ainhoa Zubillaga mezzosopranoarekin eta Pedro Jose Rodriguez pianistarekin. Sarrerak salgai daude Kultur Etxean.

ZIKLISMOA ▶

Aitor Olano (Oriako), irabazle Anoetako proban

Oriako taldeko Aitor Olanok irabazi du Anoetan jokaturako XXI. M. Oiarzabal oroimezkoa, gazte mailan, 2:22.52eko denbora eginez. Imanol Mendikute (Oriako) izan zen bigarren, denbora berean; eta Eneko Gurrutxaga (Oriako) hirugarren, 2.04ra.

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

ARETO FUTBOLA ▶

5 eta 0 galdu du Hegoalde, eta Nazaret mailaz jaitsi da

Tolosarrekin partidu zaila jokatu zuten larunbatean, etxekoak «oso gogor» zirelako

I. ETXEBESTE

Zaila zirudien partiduak hasieratik, eta halaxe izan zen azkenean. Hegoalde 5 eta 0 galdu zuen Jerez de la Frontera (Espainia) Nazareten kontrako neurketa. «Oso gogor» atera ziren etxekoak kantxara, mailaz jaitea zutelako jokoan. Irabazi arren, ez dute datorren denboraldian Ohorezko Mailan jarduterik izango, haiek irabaztea ez zelako aski izan horretarako.

Bi baja garrantzitsurekin zihoazen Hegoaldekoak, jokalarietako batzuk unibertsitateko azterketak dituztelako egunotan. Partidua modu politen hasi zen, baina hirugarren minuturako «aldatu egin zen dena». Etxekoek lehen gola sartu bezain laster kantxatik kanporatu zuten epaileak Nerea Arana. Oso era gogorrean ari ziren jokatzeko orduko Nazaretekoak, baina, hala ere, bi goleko aldearekin baino ez ziren joan aldagelara.

Bigarren zatiko lehen minutuan Isa Barriok min hartu zuen belaunean, eta berehala Miriam Pradosek utzi behar izan zion jokatzeari saihetsean kolpe handia eman ziotelako baloiarekin. Atezaina eta bi jokalarik —joaterik izan ez zutenekin, bost— gutxiagorekin jardun behar izan zuten tolosarrekin handik aurrera. Nahiko indar ez, eta aski izan zuten «denbora pasatzen uztearekin».

Gisa horretara eman dio Hegoalde denboraldiari bukaera. Azken partidua zuen larunbatekoa, eta seigarren geratu da sailkapen nagusian: Foticosekin berdinduta eta bosgarrenetik puntu bakarera. «Ditugun balibideekin oso ondo aritu gara urte osoan, eta mailari eusteaz gain, postu ona lortu dugu».

ARETO FUTBOLA ▶

Laskorainek hiruko berdinketarekin esan dio agur denboraldiari

Astrabuduaren kontra 3 eta 3 egin zuen Berazubini; Lasak eta Bengoetxeak ere orduan eman zieten taldekideei agurra

IRATXE ETXEBESTE

Laskorainek ezin izan zuen garapena erdietsi joan den larunbatean 2003-2004 denboraldiko azken jardunaldian, eta bosgarren amaitu du txapelketa, hirugarren postutik puntu bakar batetara bada ere. Larunbatean Berazubini Astrabuduako talde bizkaitarra izan zuen aurrean, azken jardunaldi honetarako suerta zitekeen areririk arriskutsuena, mailaz jaitsi ala ez baitzuen jokoan, eta bizkaitarren zoramerako norgehiagoka hirunako berdinketarekin amaitu zen.

Gezurra badirudi ere, partida oso orekatua izan zen orohar. Sailkapenaren arabera nabarmena da bi taldeen arteko kalitate desberdintasuna, eta Berazubiko ohol gainean ere antzeman zen alde hori, «baina ez da sekula ahaztu behar futebolearen badirela beste hainbat faktore kalitatea bezain garrantzitsuak: konzentrazioa, tentsioa, ahaleginerako pres-

tutasuna... Eta azken ezaugarri hauetan jokatzeko duen taldearen artean hartzea oso zaila izan ohi da».

Bi jokalariren agurra

Astrabuduakoak barnean zuten intentsitate guztiarekin aritu ziren, seguraski aurreko 29 jardunalditan ez bezalaxe, eta hiru bider izan ziren gaitz markagailua berdintzeko. Lehen zatian Barriolak estrainekoz 1-0 eta Telletxeak beranduago 2-1 aurreratu zuten Laskorain, baina atsedenaldirako binako berdinketa erakusten zuen markagailuak. Bigarren zatian, aldiz, Yustos izan zen 3 eta 2koa ipini zuena; amaierarako hiru minuturen faltan, ordea, bizkaitarren azken berdinketa etorri zen.

Laskoraintzat larunbateko albiste nagusia zamarra horitxoa denboraldi askoan jantzi duten bi jokalariren agurra izan zen: Aitor Lasak eta Xabier Bengoetxeak taldea uzten

baitute. Lasak larunbatean jokatu zituen bere azken minutuak Laskorain; oso hunkigarria izan zen bere azken aldaketaren ondoren taldekideek eta Berazubira hurbildutako zaletuek eskainitako txalo zaparrada; Bengoetxeak, berri, ezin izan zuten minuturik jokatu min hartuta baitzegoen aurreko jardunalditik.

Urteetan zehar erakutsitako jarreagatik, eskainitako konpromisoagatik eta burututako lanagatik, Lasa eta Bengoetxea «jarraitu beharreko eredu» dira Laskoraineko jokalarientzat, «egungo gizartearen hainbestetan falta diren eta hain garrantzitsuak diren erreferentziak. Javi delegatua, Egizabal eta Lasa entrenatzaileak eta Domentxe, Telletxea, Gil, Alonso, Barriola —hasierako bostekoa— Saldias, Lasa (kapitaina izan zen bere azken partiduan), Yustos, Igartua eta Sanz jokalariek aritu ziren larunbatean. Baja izan ziren Bengoetxea, Beldarrain eta Altuna.



Sakramentinoetako ikasle izandakoak

AISIALDIA ▶ Sakramentinoetan ikasle izandakoek hitzordua izan zuten larunbatean. Izan ere, 60 bat lagun elkartu ziren

bazkaritarako; Nafarroatik ere etorri ziren batzuk. Ikastetxearen iragana osatu zutenek egun ederra pasatzeko aukera izan zuten. J. SAIZAR

ASTEBURUKO KIROL EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

1. maila.	
Zarautz-Trans. Lacunza	3-3
Laskorain A- Zaldibi	5-5
C. Converters-Sala F. Txanela	5-3

1. nazionala B	
Laskorain-R. Astrabuduko	3-3

2. maila A	
Eskolapios-Aiete	5-2

Autonomikoa	
Ataun Avia-Usabal sagardotegia	10-2

Ohorezko maila	
Nazaret-Hegoalde	5-0

FUTBOLA

Goren maila.	
Tolosa-Urola	2-1
Sailkapena ▶	

1. Elgoibar	69 puntu
2. Berio	67 puntu
3. Zarautz	66 puntu
4. Arexabaleta	61 puntu
5. Tolosa	59 puntu
6. Mondragon	55 puntu
7. Real Union	54 puntu
8. Trinberpe	54 puntu
9. Bergara	53 puntu
10. Hondarribia	52 puntu
11. Aloña Mendi	51 puntu
12. Anaitasuna	51 puntu
13. Touring	51 puntu

FUTBOL 7

1. maila A	
Ibarako Gazte Asanblada-La Kabutzia	2-4
Lanbroa Dickens-Bataplán	5-1

3. maila E	
Bar Shanti Kirolak-Centro Cultural Alem	5-2

PILOTA (HITZA TXAPELKETA)

Benjamin maila.	
Irazusta-Benadre/Antoñanzas-Azkarate	16-8
Urdangarin-Urdangarin/Ander-Altuna	9-16
Eskudero-Jauregi/Aizpuru-Eizmendi	16-10
Artola-Eizmendi/Erdozia-Pagola	16-16

Infantil maila.	
Lujanbio-Eizaguirre/Esnaola-Esnaola	6-18
Urteaga-Oregi/Elola-Dorransoro	18-8
Gaztañaga-Aizpuru/Aldalur-Otamendi	0-18
Iraola-Iraola/Barandiaran-Oliveira	18-1

Alebin maila.	
Senperena-Gottia/Iraola-Zubeldia	16-0
Eizaguirre-Manterola/Irazustabarrena-Zabala	16-11
Galarraga-Egiguren/Azketa-Muñoz	16-5
Urretabizkaia-Kasatorre/Gaztañaga-Iratorza	16-3

Etorikizunekoak.	
Aspe-Obotorea/Renobales-Ebregarai	19-22
Etxebeste-Elizalde/Aranzabe-Jauregi	22-11

HITZA, eskualdeko plaza **661 678 818**
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta Toki aproposa iragartzeko

ANOETA ▶

KZguneako ordutegiaren aldaketa

Anoetako KZguneak ekainean ordutegi aldaketa izango du, 9:00etatik 13:00etara irekiko dute. Bestalde, ekaineko Internet ikastaroen ordutegia prest dago, 9:00etatik 11:00etara eta 11:00etatik 13:00etara izango dira. Ekainean ere bi mintegi egongo dira, ekainaren 7an KZguneako foroak azalduko dituzte, eta bestetik, ekainaren 8an berriak irakatsiko dituzte.

ADUNA ▶

KZgunea ireki dute udaleko liburutegian

Adunan ere, beste hainbat herritan bezala, KZgunea ireki dute herriko liburutegian. Inteneten nabigatzen ikasteko eta ordenagailuan iaiotasuna hartzeko ikastaroak hasi dira jada. 14:00etatik 18:00etara izango dira ikastaroak. Izena eman nahi duenak udaletxera joan beharko du.

IBARRA ▶

Auto istripua preso bat bisitatzerakoan

Ibarrako lau gaztek auto istripua izan dute asteburuan Alcalá Meco espetxetik bueltan, Aranda del Duero inguruan. Gazteak preso bat bisitatzera joan ziren espetxera. Bidaariak ez dute inolako zauri larririk jasan, baina autoa txikituta gelditu da. 15:00ak aldera gertatu zen istripua. Lau ibarretrek, istripua izan ondoren, taxia hartu behar izan zuten bueltatzeko, autoa han utzita.

VILLABONA ▶ KIROLA

Iratxo-Amaroz taldea txapeldun

Herenegun amaitu zen Olaederrako VI. Areto Futbol Torneoaren kiroldegian



Iratxo-Amaroz talde irabazlea partidaren ondoren. OLAEDERRA

GARAZI AZKUE

Bukatu da aurtengo Olaederra areto futbol torneoaren. Igandean izan ziren azken partidak Olaederra kiroldegian.

11:00etan ekin zioten hirugarren eta laugarren postuan zein talde geldituko ziren argitzeari. Bibalabirjen eta Sprint Izagirre taldeak izan ziren aurrez aurre. Bibalabirjen taldeak lau gol sartu zituzten eta Sprint Izagirreko jokalariek hiru.

12:00etan hasi zen txapelketako azken partida. Iratxo-Amaroz, Irurako Gazte Asanbladako gazteen aurka. Iratxo-Amaroz taldeak lortu zituen golak oraingoan. Bi eta huts zioen markagailuak partida amaie-

ran, Iratxo-Amaroz taldearen alde.

Beraz, Iratxo-Amaroz taldea gelditu da lehen postuan Olaederrako VI. Areto Futbol Torneo honetan. Bigarren lekua Irurako Gazte Asanbladako jokalariek bete zuten. Hirugarren saria Bibalabirjen taldekoek etxeratu zuten eta laugarren postuan Sprint Izagirre izan zen.

Sariak banatzerakoan, baten bat berezia. Lehen postuez gain, txapelketako jokalarionenari saria eman baitzioten. Trofeo eta Eizmendiko kirol denak eskainitako 50 euroko baloa Iratxo-Amaroz taldeko Iker Berra atezainak jaso zuen.

Hurrengo urtean VII. saioa izango da.

ZIZURKIL ▶ HEZKUNTZA

Haur Eskola irekiko dute hurrengo ikasturtean

0-2 urte bitarteko 21 haurrentzat izango da lekua; izen-ematea ostiralean amaituko da

G. AZKUE

Tolosaldeko herri askotan dago Haur Eskola zerbitzua, eta datorren ikasturtetik aurrera Zizurkilek ere izango du zerbitzu hori haurrentzat.

Pedro Mari Otaño ikastetxe-ko eraikineko gimnasioan kokatuko du Zizurkilgo Udalak Haur Eskola zerbitzua. Hogeita bat haurrentzako lekua izango da, 0-1 urte bitartean 8 haurrentzat, eta 1-2 urte bitarteko 13 umerentzat prestatuko dituzte gelak Haur Eskola publikoan.

Ikasgela hauek, ikasturteko

lehen hiruhilabetearen irekitzea espero dute arduradunek, eta data zehatza uztaila erdialde-dera jakingo dute seguruenik.

Kuotei dagokionez, egunean bost ordu edo gutxiagoz dauden haurrek hilean 135 euro ordaindu beharko dituzte; bost ordu baino gehiagoz dauden haurrek 180 euro ordaindu beharko dituzte.

Izena emateko epea ostiral honetan amaituko da, horretarako, Zizurkilgo Udala bulegoetara jo beharko da edo 943 69 30 66 edo 943 69 10 12 telefonotara deituta, 9:30etik 13:00etara.

ANOETA ▶ INGURUMENA

Aste Berdean ekintza ugari izango dira herrian

Gaur hitzaldia eta haurrentzat ikuskizuna izango dira ikastolan eta udaletxean

G. AZKUE

Ekainaren 5ean Ingurumenaren Nazioarteko Eguna da, eta horren inguruan Aste Berdea antolatuko du Anoetako Udalak aste honetarako ekintza ugariarekin.

Gaur bertan hasiko dira ekintzak. 10:00etan, Ikastolan, hitzaldia izango da Gerartha Arotzenaren eskutik, *Zer egin dezakegu egunero ingurumenaren alde?* izenburupean ingurumenaren inguruan mintzatuko da. Hitzaldia,

DBH3 eta DBH4ko ikasleei zuzenduta egongo da.

Eta arratsaldean, 18:00etan *Bor bor bor zabor* haurrentzat ikuskizuna izango da udal areto nagusian, Zizurkilgo Denborra antzerki taldearen eskutik.

Aste Berderako prestatutako egitaraua igandean amaituko da. Festak diresala-eta antolatuko duten herri krosetan Aste Berdearen logotipoa duten kamisetak banatuko zaizkie bertan parte hartuko dutenei.

IRAGARKI LABURRAK ▶



San Franzisko etorb. 47- behe
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: ernio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Tolosa. Erremontari kalean, guztiz berritutako apartamentua, gazteentzat pisu aproposa. 138.233 euro.

Tolosa. Agintari kalean, bi logela, sukaldea, egongela eta komuna. Sartzeko moduan. Berokuntzarekin. 142.440 euro.

Tolosa. Erremontari kalean, bi logelako apartamentua, oso egoera onean. 159.268 euro.

Tolosa. Laskurain kalea, berritutako pisu ederra, hiru logelarekin eta balkoiarekin. Garajea hartzeko aukera. 258.435 euro.

Tolosa. Larramendi kalean, pisu ederra garajearekin salgai.

Tolosa. Lurramendi auzoan, Sam-eko bi etxe atxiki salgai, lorategi eta jardinekin. Ikustekoak! 438.739 eurotik aurrera.

Ibarra. Julian Gaiarre kalean. Berritutako etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. Berogailuarekin. Guztiz kanpoaldera.

Ibarra. Euskal Herria kalean hainbat etxebizitza salgai 185.713 eurotik aurrera.

Usurbil. Zentroan 60 m2ko

etxebizitza salgai. Etxe polita trastelekuarekin.

Irura. Duplex zoragarria salgai, trasteleku eta garajearekin. Terraza ederra.

Irura. Bi logelako pisu polita. Gazteentzat etxebizitza aproposa. 158.066 euro.

Villabona. Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 eurotik aurrera.

Beasain. Logela bateko etxebizitza. 99.167 euro.

Legorreta. 88 m2. Ikusmen ederreko etxebizitza. Oso eguzkitsua.

153.258 euro.

Alegia. Hiru logelako pisu ederra salgai, eguzkitsua eta dena kanpoaldera. Ikusteko modukoa.

155.061 euro.

Baserriak. Baserriak aukeran ondoko herrietan: Asteasu, Tolosa, Tolosaldea, Bidania, Aia...

Pabiloiak. Aukera handia; salmantan eta alokairuan.

Borda. Salgai Urrietan.

Alkizan. Eraikuntza berriko azkeneko etxe bifamiliarra salgai.

Peñiscolan. Apartamentu ederra salgai, terraza ederrarekin.

ALTZO ▶ HEZKUNTZA

Abelino Barriola deklamazio saria, Altzon geratu da

Lehen Hezkuntzako bigarren, hirugarren eta laugarren mailako ikasleek eta horien irakasleak lortu dute saria



Abelino Barriola saria eskuratu duten ikasleak eta lagundu dieten irakaslea. O.ESKIXABEL

OLAIA ESKIXABEL

NOLEGA programaren baitan kokatzen da Abelino Barriola lehiaketa. Ahozkotasuna lantzeraz begira antolatutako deklamazio saria da. Maila bakoitzeko bi gela saritzen dituzte.

Altzoko eskolako Lehen Hezkuntzako bigarren, hirugarren eta laugarren mailako ikasleak beren mailako saria irabazi dute. Ataungo eskolako gazte-xoekin batera: «Lehenengo aldia da lehiaketan parte hartzen duguna, orain arte lehiaketan parte hartzeko adineko ikasle-rik ez baitzegoen eskolan», azaldu du irakasleak.

Sariaren berri, ikasleen eskutik jakin zuen irakasleak: «Alegiako eskolan hemen baino lehenago jakin zuten sari-tuak izan ginela; ikasleei hango lagunek eman zieten horren berri eta astelehenean eskolara etortzean saria lortu genuela esatean ez nuen sinisten».

Altzoko gazte-xoek lan desberdinak prestatu zituzten lehiaketarako; horrek, aho hizkuntza lantzeko aukera eskaini die. *Erniora txangoa* antzezla-na, Jose Antonio Ormazabalaren liburutik aukeratutako *Zuriñek*

belta izan nahi du eta Bi astromono eta amona olerkiak eta *Txori kantariak poeta hegalaria* eta *Benetako bihotza* hitz-lauak prestatu zituzten gazte-xoek irakaslearen laguntzaz.

Kasetean grabatuta

Lanak aukeratu ondoren, kasetean grabatu behar zituzten ikasleek: «Herriko hizkuntza erabili nahi genuenez, euskara batuan zeuden testuak gure bihurtu genituen», dio irakasleak. Ordu askoko lana izan zen «baina oso ondo pasatu dugu», diote ikasleek espe-

rientziak galdetzean. «Hurrengo urtean berriro lehiaketara joateko gogoz», agertu dira, gainera.

Sari gisa Iparraldera bidaia egingo dute ikasleek urria inguruan sarituak izan diren gaitzoko eskoletako gazte-xoekin. Irakasleak, berriz, aste betez Europara bidaia egiteko aukera izango du irailaren lehenengo astean: «Indar gutxi-ko hizkuntzak dauden herrialdeetara izaten da bidaia». Erdi txantxetan ikasleek Europarako bidaiaren gose, sariak elkartrukatzea proposatu diete irakasleari.



‘Aphartheid’-aren urteurrena

IKAZTEGIETA ▶ *Aphartheid*aren urteurrena betetzen zela eta, elkarretaratzea egin zuten pasa den asteartean, maiatzaren 25ean, udaletxearen aurrean, osoko bilkura egin aurretik. Elkarretaratzearen ondoren, «egoera salatu eta irtenbide bat aldarrikatzera igo ziren osoko bilkura burutzen ari zen gelara. Patxi Ulanga alkateak «guk hitzik ez genuela argi utzi ondoren, bertan behera utzi zuen bilkura», azaldu dute elkarretaratzean parte hartu zutenek. HITZA



Giro bikaina euskal festan

ANOETA ▶ Euskal festa egin zen larunbatean, maiatzaren 29an, Benta Alde bodegoiak antolatuta. Lau aizkolari aritu ziren norgehiagokan; urrezko aizkora Iñaki Eraso belauntzarrak eskuratu zuen. Hala ere, parte-hartzaile guztiei eman zizkieten loreak eta ardo botilak. *Betelu* bidaniarrak 102 kiloko harri zilindriko zaharra altxatu zuen esku batekin eta biekin. O.ESKIXABEL

INMACULADA IKASTETXEA TOLOSA

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Erizaintzaren Laguntza
- Farmazia

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Radiodiagnostikoa
- Osasun Dokumentazioa
- Gizarte Integrazioa

AURREMATRIKULA-MAIATZA-Tfno: 943 67 36 29

Loatzo Matrikulazioa
Musika Eskola
04-05 IKASTURTEA
Musikaz gozatzeraz anima zaitez!

Epea: ekainak 1-7
Non matrikulatu: (goizez, 10-12)

ANOETA: ikastolan	IBARRA: kultur etxean
ADUNA: udaletxean	LARRAUL: udaletxean
ALTZO: udaletxean	VILLABONA: kultur etxean
ALEGIA: udaletxean	IRURA: udaletxean
ZIZURKIL: Atxulondon	

ESKAINITZA ZABALA:
musika tailerra, tresnak, hizkuntza, tresnak, taldeak...

Informazio gehiago: 943 692619

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.
 Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Baliarrain. Medikua: 88 90 03
Berastegi-Elduain. Medikua:
 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Orendain. Medikua: 65 55 95
Orexa. Medikua: 68 22 28
Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 -
 67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ Tolargi: 65 00 16
 ▶ Iurrarendi egoitza: 67 03 25
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
Villabona-Aiztondo.
 Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04
 ▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
 ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Bronte C. Korreo kalea 20
 (Tolosa), 67 60 13. Larraia M.I.
 Elbarren 95 (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_publi@tolosaldeko
 hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 -
 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona_aiztondo@tolosaldeko
 hitza.info
Anoetaidea. 687 41 00 22
 anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
 ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzaldea. 687 41 01 18.
 leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUAN

Zelaia. Negutegietarako bi
 hektareatako zelaia alokatzen da.
 Eguerdian. Tel: 943-65 00 81.

IZASKUN ▶ JAIK

Bertsolari eta dantzariak girotu dute azken eguna

Herenegun jokaturako sega txikiko txapelketa ikustera jende asko hurbildu zen

DANI GIBELALDE

Bertsolarien saioek, dantza ikuskizunek eta trikitilariak alaitu zuten atzo Izaskungo jaietako azken eguna. Eguraldi onak lagunduta, jende ugari bildu zen atzoko ekitaldian.

Anjel Mari Peñagarikano eta Jexux Mari Irazu bertsolarien ateraldiekin goizean ez ezik arratsaldean ere gozatzeko aukera izan zuten herritarrek. Era berean, Alurr taldekoek, dotore, hamahiru dantza egin zituzten arratsaldean. Besteak beste, *Ikurrin dantza*, *Agurra*, *Peio Joxepe*, *Axuri beltza*, *Uztai Txiki*, *Ipurdi dantza*, *Kaxkarot*, *fandangoa* eta *arin-arina* dantzatu zituzten. Denek lan bikaina egin zuten atzokoan.

Herenegun, jendetza bildu zen Izaskungo belazeetan, Goierriko Almitza Elkartearen antolatutako sega txikiko txapelketa ikusteko. Nazioarteko Txapelketetan erabiltzen den segarekin aritu ziren partehartzaileak aurrez aurre, eta txukun aritu ziren. Izan ere, sega txikiak erabilerrazagoak eta erosteko eskuragarriagoak dira. Gizonezkoek 100 metro kuadroko saila ebaki zuten; emakumezkoek 50ekoa. Izaskun Larrarte ibartarra bigarren postuan geratu zen. Antolatzaileak pozik geratu ziren txapelketak oihartzun handia izan zuelako.

Bestalde, zikiro jatean herritar ugari izan zen, igandean hotz samar egin zuen arren.



Arri Urdangarin zaldibitarra igandean jokaturako sega txiki txapelketako une batean. D. GIBELALDE

SEGA TXAPELKETA ▶

SAILKAPENA

Emakumezkoak.

1. Rosi Urkola	2.07
2. Izaskun Larrarte	2.11
3. Aloña Jauregi	2.07
4. Ainhoa Kazkiarain	3.09

Gizonezkoak.

1. Mikel Arretxe	5.45
2. Andoni Zuriarrain	5.54
3. Arri Urdangarin	6.14
4. Andoni Egia	6.39
5. Akaitz Jauregi	7.19
6. Aitzol Berasategi	7.29



Peñagarikano eta Irazu bertsolariak, atzo eguerdian. D. GIBELALDE



Gimnasia erritmikoan, hirugarren postuan

IBARRA ▶ Gipuzkoako B Txapelketako taldekakoan hirugarren postuan geratu dira Belabieta Gimnasia Erritmika eskolako alebinak: Alazne Ezeiza, Amaia Gallego, Onintza Urruzola, Maider Urruzola eta Leire Orbegozo. Azken biak banaka ere aritu ziren. Garazi Egiguren ere Euskadiko A mailakoan aritu zen asteburuan. HITZA

LEITZA ▶ XXVI. KULTUR ASTEA



Ikusmin berezia sortu zuten danbolin tiki elektriko hauek. JAIONE ASTIBIA

Asteburu oparo bezain intentsoa

Aurtengoz ekitaldiz ez ezik, ezustekoz beteta bukatu da Kultur Astea

JAIONE ASTIBIA

Kultur Asteari igandean eman zitzaion amaiera, XXIV. Eskulangileen Erakusketarekin Baina egun bereko goizaldean ezusteko galanta izan zuten larunbateko afarian parte hartzen ari zirenek.

Izan ere larunbateko ekitaldiak bukatzeko Karrapean gazte-afaria burutu zen, baina, gaueko 12:30ak inguruan, guardia zibilaren patrulla bat hurbildu zen bat-batean, festa bertan behera moztuz eta antolatzaileei agiriak eskatuz. Tentsio une gogorak bizitu ziren bertan, lanean ari zirenak kuartelera eramane zintuztela mehatxatu baitzituzten. Azkenean Kultur Asteko ekitaldiak antolatzeko zuten baimen-agiria Maxurrenean daukaten kuartelera eramateko aginduz, bertatik alde egin zuten. Gero goizaldera arte herriaren erdiko kaleetan barrena ibili ziren hainbat patruila istiluen kontrako materiakekin, batetik bestera zebiltzanak identifikatu. Esan behar da herri guztia argirik gabe zegoela, aberia baten ondorioz.

Oparotasuna

Hurrengo egunari erakusketarekin ekin zioten eta egun osoan herriko plazan zehar zeuden postuetan, eskulangintzako produktuak izan ziren erakusgai eta salgai.

Goiz partean lanbro pixka

bat egin bazuen ere, jende asko ibili zen zer ikusian eta zer erosian ere, baita udaletxean aste osoan zehar irekita egon diren erakusketak desberdinak ikusten ere. Gose zenak gutxi-ziko taloak jatea besterik ez zuten. Hau guztia, herriko trikitilari gaztetxoek eta gaitero eta txistularien doinuaren bizitasunarekin alaitua izan zen.

Asteburua ordea, ostiral arratsaldean hasi zen Erleta eskolako atarian, bertako umeen gustagarri izan zen kale animazioarekin. Iluntzean berriz, Jeiki abesbatzaren emanaldia burutu zen herritarren harrera ezin hobearrekin. Talde horrek aspaldiko urteetan ez zuen horrelako emankizunik burutu eta irrikaz hartu zituzten, eta baita gustura atera ere kontzertutik.

Biharamonean ere, besteak beste, ez zen kultur ikuskizunik falta izan. Herriko plazan dantza saio bikaina eskaini baitzuten Galdakaoko, nahiz Leitzako dantzariak. Bien ala biek ere Ingurutxo dantzatu zuten, baina hagitz modu desberdinean: Galdakaokoek garai bateko estilora dantzatu zuten, eta laburrago ere bai, azkenean fandangoa eta porrusalda ez baitzituzten egin. Doinuak eta arropak ere, bestelakoak erakutsi zituzten. Dantza saioa borobiltzeko Bizkaiko dantza solte desberdinen erakustaldia egin zuten.

Gehiago nahi duenak, hurren arte itxaron beharko du.

GUTUN@K ▶



Leitzarrei

Lehenik eta behin esker oneko hitzak ditugu, Kultur Astearen parte hartu duzuentzat. Mila esker.

Baina badirudi Kultur Astearen antolaturik zeuden ekimen horiek ez direla denon atseginekoak izan. Ez alajaina!

Larunbatean, arratsalde bikaina bota genuen eta gaueko 9:00etatik aurrera, herri-afaria burutu zen Karrapean. 95-100 lagun umore ederrean geunden: gosea ase ondoren, soinuaren doinu kantari eta dantzari. Bat-batean guardia zibilaren patrol bat sartu zen festa gunean, hiru agenterekin, hurren antolatzailea zein zen galdetuz, identifikagintzen aginduz eta baimena erakusteko, bestela kuartelera eramane gintuztela esanez. Tentsioa igotzen ari zen uneka, ez zuten deus ere sinesen, isuna jartzeko mehatxuak egiten zituzten... Eztabaidak inora ez zuela eramaten ikusita, Alkatea ekarri arazi genuen.

Bitartean jende multzo handia bildu zen plazan. Ezin egonean, batzuk lanari ekin zioten eta besteak, dantzari. Guardia zibilek hau ikusita, alde egin zuten. Alkatea etortzen zenean kuartelera joateko aginduz, Halaxe egin genuen. Gero, lanak bukatuta etortzerako, herriaren erdialdea hartuta zuten, festan zebilen jendeari agiriak eskatuz eta beren porra eta askoekin, edozertarako prest!!

Ulertezina egiten zaigu larunbatetik igandera goizaldean bizitu genuen egoera. Jasangaitza eta mingarria gainera. Hainbeste urte ekitaldiak antolatuz, eta inoiz ez zitzaigun horrelakorik pasa. Hori da beraiek «festa disfrutatzeaz» ulertzen dutena? Eta ustezko auzotarren salaketa hori, egia bada behinik behin, hori bai dela ezin sufritua izatea. Borondatezko lanean ari, herri guztiarentzat ahalik eta ekitaldi anitzek antolatuz eta gero hau?

Benetan, min eman nahi izan duen horrek, ohartuko balitz zer kalte eragin zezaketen eta duen amorrazio guztia besteren onerako erabiliko balu, besteok ez genuke alferrik denborarik galduko.

Eskerrik beroenak Leitzako herritar guztiei erantzuten jakiteagatik. Eta hurrengo urtean ere, beste hamar eguneko Kultur Astea iritsiko da, hogeita zazpigarren urtez. Mila esker!

KULTUR TALDEA ▶ LEITZA

HITZA eskualdeko plaza

- ▶ Interesgarria
- ▶ Zabala
- ▶ Parte-hartzailea
- ▶ Baterakoa

Egin zaitez HITZaren harpidedun!

HITZA egunkaria goizero zure etxeko buzoian jasotzeaz gain, harpidedun izateak dituen abantailak gozatzeko aukera ere izango duzu.

HITZA egunkariak bere harpidedunen artean zozketak, eskualdeko komertzioetan beharpenak... eskainiko ditu.

943 30 43 46

▶ Harpidedun saila / Arreta telefonoa:
astegunetan (08:30etik 20:30era)
larunbatetan (9:00etatik 13:00etara)

tolosaldeko
eta leitzaldeko

hitza

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Mendi Asanbladak mendi ibilaldietako diapositibak erakutsiko ditu Kultur Etxean 19:00etan.
Tolosa. Kontseiluak *Hizkuntz eskubideak, denon konpromisoa* leloarekin larunbaterako deitu duen manifestaziorako autobusa antolatu du Galtzaundi Euskara Taldeak. Izen-ematea: 19:00etatik 21:00etara Galtzaundin, ostirala arte, 9 eurotan (bazkideek 6 euro).

ERAKUSKETAK

Tolosa. Faustino Aranzabalen margolanak Aranburu Jauregian.
Tolosa. Angel Cuerdoren argazkiak Aranburun.

HITZALDIAK

Tolosa. Angel Uranga Erretengibleko teknikariak ebexbitzen inguruko hitzaldia eskainiko du Kultur Etxean 20:00etan: babes ofizialeko etxeak, etxe hutsak, proiektu berriak, e.a. Gazte Guneak antolatuta.
Tolosa. Mahai-ingurua. *Inmigrazioa Euskal Herrian: ezaugarri soziologikoak eta zailtasunak.* Partaideak: Agustin Unzurrunzaga (SOS Arrazakeria), Begoña Pexarroman (Farapi). Moderatzailea: Marcos Flores (Herri Irratiko *Hitza* dugu saiokoa eta Adiskidetuak elkarteko kidea). Bihar Kultur Etxean 20:00etan.

ZINEMA

Tolosa. Pedro Almodovarren *La mala educacion* filma 19:30ean eta 22:30ean. Ikuslearen eguna.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Goretzi Zubillaga Goñi (Leitza).
 Gaur 13 urte betetzen ditu. Zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN
 Maria Gurrutxaga (Ibarra).
 Gaur urtebete. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
 Urtebetetzak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
 HITZAren egoitzara (Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)
 Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

Ero-etxe elkarteak 25 urte

TOLOSA ▶ Liburuxka argitaratu dute elkartearen historia eta argazkiak jasoz; txapelketak, otorduak eta dantzaldia izan zuten; 'Betizu show'-a, hilaren 12an



Ero-etxe elkarteko bazkide batzuk larunbatean elkartearen, urtemugako liburuxka eskuartean dutela. JOXEMI SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Gauza asko egiten ditu elkarte batek 25 urtetan. Gastronomiarekin aitzakian bilduta, kirol eta kultur ekimen ugari sustatzen baitira elkarte batean. Tolosan behintzat bai.

Bere historian zehar antolatu eta burututako ekitaldi horien testuak eta irudiak bildu ditu Ero-etxe elkarteak liburuxka batean: Berastegi San Anton gailurreko borda —koadrila bat asteburuetan han biltzen zen eta hortik datorkio izena elkarteari—, bi lokalak, Inauteriak, txaranga, piezaren musika eta letra, krosa, Santa Ageda, hegazti lehiaketa, diskoa... Larunbatean aurkeztu zuten lana urtemugaren ospakizunen barruan.

Egun konpletua izan zuten

Ero-etxeok. Liburuxkaren aurkezpenaren ondoren, haiketakoia izan zuten bazkideek, ondoren toka eta mus txapelketak eta bazkaria. Eta eguna bukatzeko afari berezia eta dantzaldia izan zuten. Ederki pasatu zuten eguna, otordu, joku eta dantzaren artean. Go-goan izango dute.

Beste ekitaldi bat ere bazuten larunbateko egitarauan, baina atzeratu egin behar izan zuten ekoiztearean aginduz. Betizu Show ekainaren 12an izango da Leidor zineman. Saldua dauden sarrerak hilaren 12rako ere balioko dute eta salgai daude Kultur Etxean.

Ez dira Ero-etxeren urtemugako ekitaldi bakarrak izango. Inauterietan Tolosako txaranga doinuekin disko ederra atera zutela gogoratu behar da.

press to kalitatezko garbiketa azkarrak
EDREDOIA GARBITZEAGATIK EDO ARROPA KONPONTZEAGATIK: JANTZI BATEN GARBIKETA OPARI
ALFONBREN GARBIKETA: 7,50€/m²ko
 San Frantzisko, 19 • **TOLOSA** • 943 65 38 77

DENDA HAUEN Tolosaldeko HITZAren LAGUNTZAILEAK DIRA
 Egin itzazu zure erosketak bertan

- Pottoko Haur
- Jantziak
- Nerea Lentzeria
- Mikel Izagirre
- Ileapaintzaileak
- Iriarte Lentzeria
- Berezi Neurri
- Bereziak
- Factory
- Elite Kirolak
- Bazar Amiano
- Kopibat
- Cid Bitxitegia
- Lizarribar
- Oinetakoak
- Arri Oinetakoak eta Konponketak
- Desgaste Oinetakoak
- Aralar Kirolak
- Muebles Garces
- Poxpolin
- Haur Jantziak
- Oski
- Garikano 1815
- Azpiko Arropa
- Amaja Lentzeria
- Kiara Bitxitegia
- Poxpolin
- Enmarkazioak eta Opariak
- Milar Electro-Hogar
- Imen Bitxitegia
- Pressto Tintoreria
- Oñativia
- Lurrindenda
- Elola Altzariak
- La Vasconia
- Axular Oinetakoak
- Iratzar Erlojotegia
- Zumeta
- Elektrogailuak
- Arretxe Mertzeria
- Ugarte Bitxidenda
- Bitxilore
- Juan Luis Bitxitegia
- Ezenarro Leihoak
- Kanikak arropa denda

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREN KIN %5*-eko BEHERAPENA IZANGO DUZU ZURE EROSKETAN. (Martxoetik ekainera)
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!
 *Promozio hau ez zaie beste beharapenei gehituko. Eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da.